<u>Lehendakaria / Presidente</u>
Juan Ramón Ciprián Ansoalde

<u>Kidea/Vocal</u>
Imanol Zubizarreta Arteche

<u>Kidea - Idazkaria / Vocal Secretaria</u>
María Yeregui Hernández

**Resolución 3/2023 ebazpena**
Recurso 19/2022 errekurtsoa

AGISAS – GIPUZKOAKO GIZARTE INTEGRATZAILE ETA ANIMATZAILE SOZIO KULTURALEN ELKARTEAk Eibarko Egogain zentroan esku-hartze psikosozialeko programa garatu eta gauzatzeko zerbitzuaren kontratuaren baldintza agirien aurka ezarritako kontratazio arloko errekurtso berezian (2022/78 espedientea), Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, gaur egindako bileran, goian adierazitako kideak bertan direla, honako erabaki hau hartu du, aho batez.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES (AGISAS) contra los pliegos del contrato del servicio de desarrollo y ejecución del programa de intervención psicosocial en el centro Egogain de Eibar (expediente 2022/78), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

## AURREKARIAK

**LEHENENGOA.-** 2022ko urriaren 17an Auzitegi honen erregistro elektronikoan aurkeztutako idatziaren bidez, AGISASek kontratazio arloko errekurtso berezia aurkeztu zuen ebazpen honen sarreran aipatzen den kontratua arautzen duten baldintza agirien aurka; errekurtso hori erregistratu zen 19/2022 zenbakiarekin.

**BIGARRENA**.- Gizarte Politiketako Departamentuari bidali zion errekurtsoa, eta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 56.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio espedientea eta dagokion txostena eskatu zizkion.

**HIRUGARRENA.-** Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatuak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak, 2022ko abenduaren 20an egindako bilkuran, kontratu hau esleitzeko prozeduran atzera egitea eta zerbitzu bera

## ANTECEDENTES DE HECHO

**PRIMERO.-** Mediante escrito presentado en el registro electrónico de este Tribunal el día 17 de octubre de 2022, AGISAS interpuso recurso especial en materia de contratación contra los pliegos que rigen el contrato citado en el encabezamiento de esta resolución; recurso que quedó registrado con el número 19/2022.

**SEGUNDO.-** El Tribunal remitió el recurso al Departamento de Políticas Sociales y le solicitó, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), el expediente de contratación y el correspondiente informe.

**TERCERO.-** A propuesta de la diputada foral del Departamento de Políticas Sociales, el Consejo de Gobierno Foral, en sesión celebrada el 20 de diciembre de 2022, ha acordado desistir del procedimiento de adjudicación de este contrato y

kontratatzeko beste espediente bat onartzea erabaki du.

aprobar un nuevo expediente de contratación del mismo servicio.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

### Errekurtsoaren onargarritasuna

### Admisibilidad del recurso

**LEHENENGOA.- Xedea.**

Errekurtsoa jarri da zerbitzu kontratu baten baldintza agirien aurka. Kontratu horren balio zenbatetsia 911.588,80 euro da.

Beraz, errekurritutako egintzaren aurka kontratazio alorreko errekurtso berezi bat aurkez zitekeen, hala xedatzen baitu SPKLren 44. artikuluak, 1 a) eta 2 a) apartatuetan.

**PRIMERO.- Objeto.**

El recurso se interpone contra los pliegos de un contrato de servicios cuyo valor estimado asciende a 911.588,80 euros.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1 a) y 2 a) del artículo 44 LCSP.

**BIGARRENA.- Eskumena.**

Errekurtso hau ebazteko eskumena Auzitegi honi dagokio, hala agintzen baitu 24/2010 Foru Dekretuak, irailaren 28koak, Kontratu Errekurtsoen Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzen duenak, 2.1 artikuluan.

**SEGUNDO.- Competencia.**

La competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**HIRUGARRENA.- Epea**

Errekurtsoa SPKLk 50.1.b) artikuluan aurreikusten duen hamabost egun baliodun eko epearen barruan aurkeztu da, kontuan hartzen bada lizitazio iragarkia eta baldintza agiriak 2022ko irailaren 23an argitaratu zirela Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratatzailearen profilean Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman.

**TERCERO.- Plazo.**

El recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.b) LCSP, si se tiene en cuenta que el anuncio de licitación y los pliegos se publicaron en el perfil de contratante de la Diputación Foral de Gipuzkoa, alojado en la Plataforma Contratación Pública en Euskadi, el día 23 de septiembre de 2022.

**LAUGARRENA.- Legitimazioa.**

Errekurtsogilea errekurtsoa jartzeko legitimatuta dago, hala xedatzen baitu SPKLk 48. artikuluan, eta 814/2015 Errege Dekretuak, irailaren 11koak, kontratuen alorreko erabakiak berrikusteko prozedura berezien Erregelamendua onartzekoak, 24.1 artikuluan, aurkaratzen duen agirien kontratuaren xedearekin zerikusia duten interesak

**CUARTO.- Legitimación.**

La recurrente está legitimada para interponer el recurso, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP y en el artículo 24.1 del Reglamento de los procedimientos especiales de revisión de decisiones en materia contractual, aprobado por Real Decreto 814/2015, de 11 de septiembre, puesto que se trata de una asociación

ordezkatzen dituen elkartea delako, eta bertako kideen interes kolektiboak defendatzen dituelako.

representativa de intereses relacionados con el objeto del contrato cuyos pliegos impugna, y actúa en defensa de los intereses colectivos de sus asociados.

## Auziaren mamia

## Fondo del asunto

**BOSGARRENA.- Errekurritutako jarduketa.**

2022ko irailaren 13an hartutako erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak, Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatu titularraren proposamenez, onartu zuen Eibarko Egogain zentroan esku-hartze psikosozialeko programa garatu eta gauzatzeko zerbitzua kontratatzeko espedientea bai eta kontratazioa arautuko zuten administrazio klausula partikularren agiria eta preskripzio teknikoen agiria ere (2022/78 espedientea).

AGISASek, errekurtsoan, zerbitzua emateko behar diren giza baliabideei buruzko preskripzio teknikoen agiriko zenbait alderdi aipatu ditu, eta alegatu du arbitrarioak eta diskriminatzaileak direla gizarte integrazioko goi mailako teknikarientzat.

**QUINTO.- La actuación recurrida.**

Mediante acuerdo adoptado el 13 de septiembre de 2022 el Consejo de Gobierno Foral, a propuesta de la diputada foral titular del Departamento de Políticas Sociales, aprobó el expediente de contratación del servicio de desarrollo y ejecución del programa de intervención psicosocial en el centro Egogain de Eibar, así como el pliego de cláusulas administrativas particulares y el de prescripciones técnicas que habían de regir la contratación (expediente 2022/78).

En su recurso AGISAS objeta diversos aspectos del pliego de prescripciones técnicas relativos a los recursos humanos necesarios para prestar el servicio, alegando que resultan arbitrarios y discriminatorios para los técnicos superiores en integración social.

**SEIGARRENA.- Errekurtsoaren xedea desagertzea.**

SPKLren 152.4 artikuluan xedatutakoaren babesean, Diputatuen Kontseiluak, 2022ko abenduaren 20ko bilkuran, erabaki du kontratu honen adjudikazio prozeduran atzera egitea, azalpen zatian adierazitako arrazoiengatik, eta erabakia kontratatzailearen profilean argitaratzea.

Erabakiak adierazten du, errekurtsogilearen asmoak aztertu ondoren, Gizarte Politiketako Departamentuak berriz aztertu duela zerbitzua eman dezaketen profesionalen definizioa, eta eskakizunak profil profesionalera egokitu direla.

Atzera egitea erabakitzeaz gain, beste kontratazio espediente bat onartzen da eta espediente horren baldintza teknikoen agirietan, aldatu egiten da zerbitzua eman behar duten profesionalen titulazio

**SEXTO.- Desaparición del objeto del recurso.**

Al amparo de lo dispuesto en el artículo 152.4 LCSP, el Consejo de Gobierno Foral, en sesión de 20 de diciembre de 2022, ha acordado desistir del procedimiento de adjudicación de este contrato por las razones expresadas en su parte expositiva, y publicar el acuerdo en el perfil de contratante.

Señala el acuerdo que, analizadas las pretensiones de la recurrente, el Departamento de Políticas Sociales ha reexaminado la definición de los profesionales que puedan prestar el servicio y se han adaptado los requisitos al perfil profesional.

El desistimiento se acuerda al mismo tiempo que se aprueba un nuevo expediente de contratación en cuyos pliegos de prescripciones técnicas se modifica lo referente a las titulaciones académicas

akademikoei buruz ezarritakoa.

de los profesionales que habrán de ejecutar las prestaciones del servicio.

Kontratazio organoak adjudikazio prozeduran atzera egiteak errekurtso hau amaitzea dakar, xedea desagertu denez (2015ko urriaren 1eko 39/2015 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena, 84.2 artikulua), eta horrela erabakitzen da.

Ahora bien, el desistimiento del procedimiento de adjudicación por parte del órgano de contratación produce la terminación del presente recurso por desaparición sobrevenida de su objeto (artículo 84.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas), y así debemos declararlo.

Horren arabera, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

**ERABAKITZEN DU**

**ACUERDA**

Amaitutzat ematea, xedea desagertu denez, AGISAS – GIPUZKOAKO GIZARTE INTEGRATZAILE ETA ANIMATZAILE SOZIO KULTURALEN ELKARTEAk ezarritako kontratazio alorreko errekurtso berezia.

Declarar terminado, por desaparición sobrevenida de su objeto, el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES (AGISAS).

SPKLk 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Donostia, 2023ko urtarrilaren 13a / San Sebastián, 13 de enero de 2023.**